EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN KALITATE AGENTZIA
AGENCIA DE CALIDAD DEL SISTEMA UNIVERSITARIO VASCO

UNIBASQ

EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN KALITATE-AGENTZIAREN (UNIBASQ) 2016-2019 ALDIRAKO PROGRAMA-KONTRATUA

Vitoria-Gasteiz, 2016ko ekainaren 16a.

BILDU DIRA

Alde batetik, Cristina Uriarte Toledo andrea, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua.

Eta, bestetik, Eva Ferreira Garcia andrea, Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziako zuzendaria.

ESKU HARTU DUTE

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren izenean eta haren ordezkari-lanetan, eta Unibasqen izenean eta haren ordezkari-lanetan, hurrenez hurren.

Bi aldeek behar adinako ahalmena dute Programa-Kontratu hau egiteko, eta honako hau

ADIERAZI DUTE

- Otsailaren 25eko 3/2004 Legeak –Euskal Unibertsitate Sistemarenak– Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia sortu zuen, unibertsitateen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren sailari atxikitako zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren forma juridikoarekin eta Euskal Unibertsitate-Sistemaren eremuko kalitatea ebaluatu, egiaztatu eta ziurtatzeko helburuarekin, betiere Espainiako, Europako eta nazioarteko esparrua kontuan hartuta.

- Agentzia sortu zenetik, eta jarduera Europako estandarretara egokitzeko, aldaketak sartu ziren lege-erregulazioan, eta, horren ondorioz, Agentziarentzat espezifikoa zen lege bat onartu zen, ekainaren 28ko 13/2012 Legea alegia, Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari buruzkoa.

- Adierazitako Legeak ezarritakoari jarraiki, Unibasq Agentziaren Estatutuak egokitu ziren Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Estatutuak onartzen dituen apirilaren 16ko 204/2013 Dekretuaren bidez.

CONTRATO-PROGRAMA DE LA AGENCIA DE CALIDAD DEL SISTEMA UNIVERSITARIO VASCO (UNIBASQ) PARA EL PERIODO 2016-2019

En Vitoria-Gasteiz, a 16 de junio de 2016.

REUNIDAS

De una parte la Excelentísima Sra. Dña. Cristina Uriarte Toledo, Consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura.

Y de otra parte, Dña. Eva Ferreira García, Directora de Unibasq - Agencia de Calidad del Sistema Universitario Vasco.

INTERVIENEN

En nombre y representación de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y en nombre y representación de Unibasq, respectivamente.

Teniendo ambas capacidad suficiente para otorgar el presente Contrato-Programa.

MANIFIESTAN

- Que la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco, crea la Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco, bajo la forma jurídica de ente público de derecho privado adscrito al Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de universidades, y teniendo como objeto la evaluación, la acreditación y la certificación de la calidad en el ámbito del Sistema Universitario Vasco, considerando el marco español, europeo e internacional.

- Que desde su creación y con el fin de adaptar su actividad a los estándares europeos se han introducido modificaciones en su regulación legal, los cuales han culminado con la aprobación de una ley específica para la Agencia, la Ley 13/2012, de 28 de junio, de Unibasq-Agencia de Calidad del Sistema Universitario Vasco.

- Que conforme establece la citada Ley, se han adaptado los Estatutos de Unibasq a través del Decreto 204/2013, de 16 de abril, por el que se aprueban los Estatutos de Unibasq-Agencia de Calidad del Sistema Universitario Vasco.

- 204/2013 Dekretuaren 24. artikuluak ezartzen duenez, Agentziaren eta unibertsitateen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Sailaren arteko harremanak hainbat urtetarako programa-kontratuen bidez egituratzen dira jarduera gehienetan.

- 13/2012 Legeak zein lege hori garatzen duten Estatutuek ezartzen dutenez, Agentziak hainbat urtetarako programa-kontratu bat izenpetzen du unibertsitateen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Sailarekin, Agentziaren Plan Estrategikoari jarraiki. Plan Estrategiko horretan, finantzaketa ezartzen da, helburu batzuk betetzeari lotuta.

- 2014ko irailaren 15ean, Agentzia ENQA erakundean sartu zen (European Association for Quality Assurance for Higher Education) eskubide osoko kide gisa, eta EQAR erakundean (European Quality Assurance Register for Higher Education) erregistratuta dago 2014ko azaroaren 29az geroztik. Horren ondorioz, titulazio ofizialen ebaluazioaren arloko (egiaztapenari eta aldaketari dagokienez, bereziki) zein erakundeen egiaztapenaren arloko eskumen gehiago hartu ditu bere gain.

- 2015eko abenduaren 18an, Gobernu Kontseiluak Unibasq Agentziaren 2016-2019ko Plan Estrategikoa onartu du. Plan horretan, Agentziak datozen lau urteetan landuko dituen lau ardatz estrategikoak –eta jardun-ildoak– daude ezarrita: aholkularitza eta ebaluazioa, gizarte-proiekzioa, nazioartekotzea eta barne-antolamendua.

- Programa-kontratua Agentziaren jarduera-eremu guztietan kalitatea hobetzeko tresnatzat hartu behar da. Gainera, Plan Estrategikoan zehaztutako helburuak lortzera bideratutako ekintzak pixkanaka ezartzeko aukera eman behar du, eta Agentziaren kudeaketa-autonomia bermatu behar du.

- Agentziaren Estatutuetan xedatutakoaren arabera, programa-kontratuak aldi osoko oinarrizko aurreikuspen ekonomikoak eta finantza-aurreikuspenak (hainbat urtetarako ikuspegiaren arabera zehaztuak) bildu behar ditu, Agentziaren finantza-nahikotasuna bermatzeko. Aurreikuspen horiek aldatu ahal izango dira helburuetan izandako aldaketen edo ezohiko jardunen ondorioz.

- Que el art. 24 de dicho Decreto 204/2013 establece que las relaciones de la Agencia con el Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de universidades se articulan para la mayoría de las actividades por medio de contratos-programa plurianuales.

- Que tanto la Ley 13/2012 como los Estatutos que la desarrollan establecen que la Agencia suscribe un contrato-programa plurianual con el Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de universidades de acuerdo con el Plan Estratégico de la Agencia en el que se establece la financiación, ligada al cumplimiento de unos objetivos.

- Que el 15 de septiembre de 2014 la Agencia ha entrado en ENQA (European Association for Quality Assurance for Higher Education), como miembro de pleno derecho, y está registrada en EQAR (European Quality Assurance Register for Higher Education) desde el 29 de noviembre de 2014. Ello ha supuesto la asunción de nuevas competencias tanto en materia de evaluación de titulaciones oficiales (especialmente la verificación y modificación), como de acreditación institucional.

- Que con fecha 18 de diciembre de 2015 el Consejo de Gobierno ha aprobado el Plan Estratégico 2016-2019 para Unibasq. En dicho Plan se establecen los cuatro ejes estratégicos y las líneas de actuación en las que la Agencia pretende incidir en los próximos cuatro años: asesoramiento y evaluación, proyección social, internacionalización y organización interna.

- Que el contrato-programa debe concebirse como un instrumento de mejora de la calidad en todos los ámbitos de actividad de la Agencia, que permita implantar de forma progresiva acciones conducentes a la obtención de los objetivos marcados en el Plan Estratégico al mismo tiempo que garantiza su autonomía de gestión.

- Que según disponen los Estatutos de la Agencia, el contrato-programa debe incluir las previsiones económicas y financieras básicas de todo el periodo, especificadas de modo plurianual, a fin de garantizar la suficiencia financiera de la Agencia. Estas previsiones podrán ser modificadas por variaciones en los objetivos o actuaciones extraordinarias.

Horri guztiari jarraiki, Unibasq Agentziaren 2015eko abenduaren 18ko Gobernu Kontseiluaren aldeko erabakiaren ondoren, bi aldeek erabaki dute 2016-2019 aldirako Programa-Kontratu hau izenpetzea. Programa-Kontratuak honako klausula hauei jarraituko die:

KLAUSULAK

1. XEDEA.

Agentziak 2016-2019 aldirako dituen helburuak eta helburu horiek lortzeko abian jarri beharreko jarduerak eta ekimenak ezartzea da Programa-Kontratuaren xedea. Halaber, helburu bakoitzerako jarraipen-adierazleak zehazten dira hainbat urtetarako ikuspegiaren arabera.

2. HELBURUA

Programa-Kontratuaren helburuak (Agentziaren Estatutuetan ere jasota daudenak) honako hauek dira:

- Agentziaren eta unibertsitateen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Sailaren arteko harremanak antolatzea. Bi alderdiek konpromisoak hartuko dituzte, eta Agentziak kontuak eman beharko dizkio aldizka Eusko Jaurlaritzari.

- Agentziaren helburu orokorrak adostea bien artean, Euskal Unibertsitate-Sistemaren kalitatea bermatze aldera, eta hori guztia Agentziak haren eginkizunak gauzatzeko duen independentzia bermatuz.

- Agentziari haren lana gauzatzeko behar dituen bitartekoak ematea eta haren independentzia bermatzea; horretarako, urte anitzeko finantzaketa ziurtatu beharko du.

3. PRINTZIPIOAK ETA JARDUN OINARRIAK

Agentziak une oro kontuan hartuko ditu independentziaren, gardentasunaren, ekitatearen eta eraginkortasunaren printzipioak, eta zehaztasuna eta objektibotasuna bermatuko ditu haren eskumeneko prozesu eta erabaki guztietan. Agentzia arautzen duen Legearen 3.1 artikuluaren arabera, Euskal Unibertsitate-Sistemaren kalitatea sustatu eta bermatu behar du (Europako eta nazioarteko esparrua kontuan hartuta), administrazio publikoei, unibertsitateei eta beste agente batzuei informazioa edo aholkularitza eman behar die,

En su virtud, previo el acuerdo favorable del Consejo de Gobierno de 18 de diciembre de 2015 de Unibasq, ambas partes acuerdan suscribir el presente Contrato-Programa para el período 2016-2019, que se regirá conforme a las siguientes:

CLÁUSULAS

1. OBJETO.

El objeto del Contrato-Programa es establecer los objetivos de la Agencia durante el período 2016-2019, así como las actividades e iniciativas que ha de llevar a cabo para el cumplimiento de los mismos. Asimismo, se definen de modo plurianual los indicadores de seguimiento para cada objetivo.

2. FINALIDAD

Las finalidades del Contrato-Programa y que a su vez están contenidas en los Estatutos de la Agencia son:

- Articular las relaciones entre la Agencia y el Departamento del Gobierno Vasco competente en materia de universidades. Esta relación se basa en la adquisición de compromisos por ambas partes y en la rendición periódica de cuentas al Gobierno Vasco por parte de la Agencia.

- Establecer de mutuo acuerdo los objetivos generales de la Agencia en el sentido de garantizar la calidad del Sistema Universitario Vasco y todo ello asegurando la independencia de la Agencia en el ejercicio de sus funciones.

- Dotar a la Agencia de los medios necesarios para desarrollar su labor y garantizar su independencia asegurando su financiación plurianual.

3. PRINCIPIOS Y BASES DE ACTUACIÓN

La Agencia actuará en todo momento con observancia de los principios de independencia, transparencia, equidad y eficiencia, garantizando el rigor y la objetividad en el ejercicio de sus funciones. Según el art. 3.1 de la Ley que la regula, debe promover y garantizar la calidad del Sistema Universitario Vasco, considerando el marco europeo e internacional; informar o asesorar a las administraciones públicas, a las universidades y a otros agentes; e informar a la sociedad de sus actividades a través de la rendición de cuentas.

eta bere jardueren berri eman behar dio gizarteari kontuak ematearen bidez.

Esparru horren barruan, eta Unibasq-en 2016-2019ko Plan Estrategikoa lantzeko gogoeta-prozesuaren ondoren, datozen urteetan euskal ingurune sozioekonomikoarekiko lankidetza- eta aholkularitza-lanak areagotzeko, ebaluazio-jarduerak sinplifikatu eta sendotzeko (nazioarteko parametroak kontuan hartuta), gizarte-proiekzioa hobetzeko eta Euskal Unibertsitate-Sistema nazioartekotzeko asmoa du Agentziak.

4. UNIBASQ AGENTZIAREN KONPROMISOAK 2016-2019 ALDIRAKO

Aurrekontuaren ikuspuntutik, Unibasq Agentziaren jarduerak hiru multzotan daude antolatuta Kontratu honetan. Lehena "Oinarrizko Finantzaketa" da, eta Agentziako langileen egitura eta gastu orokorrak biltzen ditu, hau da, Agentziaren funtzionamendurako beharrezkoak diren partidak. Hortaz, Agentziaren gastu arrunta jasotzen du.

Bigarren multzoan ("Ohiko Jardueren Finantzaketa"), Legeak Unibasq-i agindutako funtzioak eta jarduerak betetzeko aurrekontu-partidak daude bilduta.

Bi multzo horietan, kontuan hartu behar da ENQA erakundean sartu eta EQAR erakundean erregistratu izanaren ondorioz Agentziak titulazioen ebaluazioaren arloko (egiaztapenari eta aldaketari dagokienez, bereziki) zein erakundeen egiaztapenaren arloko eskumen gehiago hartu dituela bere gain, eta, beraz, zeregin gehiago bete behar dituela ere bai.

Azkenik, hirugarren multzoa ("Helburuen Araberako Finantzaketa") Agentziak bere aholkularitza- eta ebaluazio-jarduerak hobetu eta zabaltzeko eta Euskal Unibertsitate-Sistemaren kalitatea eta nazioarteko ikuspegia hobetzeko egin beharreko jarduerari dagokio.

Agentziaren jarduera osoa bat dator haren Plan Estrategikoan ezarritako ardatz estrategiko eta hobekuntza-helburuekin. Jarduera bakoitzak Plan Estrategikoaren helburuekin duen lotura Programa-Kontratu honen II. Eranskinean zehaztuta dago.

Azkenik, ohiko jardueraren adierazleak zein baldintzapeko finantzaketari lotutakoak III. Eranskinean zehaztuta daude.

Dentro de este marco, y tras el oportuno proceso de reflexión para la elaboración del Plan Estratégico de Unibasq 2016-2019, en los próximos años la Agencia se ha propuesto incrementar las labores de asesoramiento y colaboración con el entorno socioeconómico vasco, simplificar y consolidar las actividades de evaluación teniendo en cuenta parámetros internacionales, mejorar su proyección social e internacionalizar el Sistema Universitario Vasco.

4. COMPROMISOS DE UNIBASQ PARA EL PERÍODO 2016-2019

Desde el punto de vista presupuestario, en este Contrato se estructuran las actividades de UNIBASQ en tres bloques. El primero se denomina "Financiación Básica", e incluye la estructura del personal de la Agencia y los gastos generales, esto es, las partidas necesarias para el funcionamiento de la Agencia. Es decir, constituye el gasto corriente de la Agencia.

El segundo, "Financiación de Actividades Ordinarias", incluye aquellas partidas presupuestarias destinadas al cumplimiento de las funciones y actividades que la Ley encomienda a Unibasq.

En estos dos bloques, debe tenerse en cuenta que la entrada en ENQA y su registro en EQAR ha supuesto la asunción de nuevas competencias que incrementan las tareas a realizar por la Agencia, tanto en la evaluación de titulaciones (especialmente verificación y modificación), así como la acreditación institucional.

El tercer bloque, denominado "Financiación por Objetivos", corresponde a la actividad que la Agencia se propone realizar para mejorar y extender sus actividades de asesoramiento y evaluación así como para mejorar la calidad y la visión internacional del Sistema Universitario Vasco.

Toda la actividad de la Agencia está en línea con los ejes estratégicos y objetivos de mejora que Unibasq se ha puesto en su Plan Estratégico. La relación de cada actividad con los objetivos del Plan Estratégico se detalla en el Anexo II de este Contrato-Programa.

Por último, tanto los indicadores de actividad ordinaria como los sujetos a financiación condicionada se detallan en el Anexo III.

Konpromisoen betetze-maila

Programa-Kontratu honen bidez bere gain hartutako helburu eta konpromisoen betetzearen jarraipena eta kontrola 7. atalean adierazitako kontrol- eta jarraipen-organoek egiaztatuko dute. Horretarako, klausula horretan aurreikusitako Jarraipen Batzordeak eranskinetan zehaztuta dagoen ekintza multzo bakoitzaren betetze-maila egokia finkatuko du txosten batean.

Ebaluazioak helburuen arabera ebaluatu behar diren eta Programa-Kontratu honen II. Eranskinean jasota dauden ekintzen finantzaketa hartuko du eraginpean, eta III. Eranskinean bildutako "helburuen araberako adierazleen" arabera egingo da. Jarraipen Batzordeak, nolanahi ere, Eranskin horietan erabakitako ekintza batzuen izaera (urte anitzekoa) eta ekintza horiek indarrean dagoen Plan Estrategikoaren esparruan gerora agertutako errealitateetara egokitzeko aukera hartuko du kontuan. Programa-Kontratua betetzen ez bada, aurrekontua egokitu egingo da eta bidegabeki jasotako funtsak itzuli egingo dira.

Ebaluazioaren emaitzek ez dute eraginik izango Agentziaren oinarrizko eta ohiko funtzionamenduari lotutako jardueren finantzaketan. Horregatik deitzen zaie adierazle horiei "oinarrizko eta ohiko jardueraren adierazle".

Konpromiso berriak

Programa-Kontratu honetan esanbidez agertzen direnez bestelako konpromisoak ezartzeko, 9. klausulan Programa-Kontratua aldatzeko ezarritako prozedurara jo beharko da. Prozedura horrek, hala badagokio, konpromiso horien finantzaketak behar duen konpentsazio ekonomikoa finkatuko du.

5. EUSKO JAURLARITZAREN KONPROMISOAK

Oinarrizko eta Ohiko Funtzionamenduari lotutako Jarduerak

Hona hemen Agentziaren finantzaketa-premia:

Nivel de cumplimiento de los compromisos

El seguimiento y control del cumplimiento de los objetivos y compromisos asumidos mediante el presente Contrato-Programa se verificará por los órganos de control y seguimiento a los que hace referencia el apartado 7. A tal fin, la Comisión de Seguimiento que se prevé en dicha cláusula determinará en un informe el nivel satisfactorio de cumplimiento en relación con cada uno de los grupos de acciones que se especifican en los anexos.

La evaluación afectará a la financiación de las acciones específicas evaluables por objetivos recogidas en el Anexo II del presente Contrato-Programa y se realizará en función de los "indicadores por objetivos", incluidos en el Anexo III. La Comisión de Seguimiento considerará las acciones acordadas en dichos Anexos teniendo en cuenta el carácter plurianual de algunas de las acciones y la posibilidad de adecuar dichas acciones, en el marco del Plan Estratégico vigente de la Agencia, para adaptarse a realidades sobrevenidas. El incumplimiento del Contrato-Programa supondrá la adecuación presupuestaria requerida y la devolución de los fondos indebidamente percibidos.

Los resultados de la evaluación no afectarán a la financiación de las actividades de funcionamiento básico y ordinario de la Agencia. Los indicadores incluidos en el mismo se denominan por ello "indicadores de actividad básica y ordinaria".

Nuevos compromisos

El establecimiento de nuevos compromisos diferentes a los que expresamente figuran en el presente Contrato-Programa deberá materializarse mediante el procedimiento de modificación del Contrato-Programa que se establece en la cláusula 9 y que determinará, en su caso, la compensación económica que requiera la financiación de estos compromisos.

5. COMPROMISOS DEL GOBIERNO VASCO

Actividades de Funcionamiento Básico y Ordinario

La necesidad de financiación de la Agencia es:

	2016	2017	2018	2019
Oinarrizko Finantzaketa Financiación Básica	*699.795*	*752.857*	*772.482*	*792.713*
Ohiko Jardueren Finantzaketa Financiación Actividades Ordinarias	*559.200*	*378.000*	*388.000*	*403.000*
GUZTIRA TOTAL	1.258.995	1.130.857	1.160.482	1.195.713

Eusko Jaurlaritzaren konpromisoa honako finantzaketa hau da:

El compromiso del Gobierno Vasco es la financiación siguiente:

	2016	2017	2018	2019
Oinarrizko Finantzaketa Financiación Básica	*699.795*	*752.857*	*772.482*	*792.713*
Ohiko Jardueren Finantzaketa Financiación Actividades Ordinarias	*356.461*	*342.143*	*340.518*	*347.287*
GUZTIRA TOTAL	1.056.256	1.095.000	1.113.000	1.140.000

Oinarrizko eta ohiko finantzaketak, nolanahi ere, Agentziak nahitaez bete beharreko jarduerak egiteko finantza-nahikotasuna bermatzen du, hau da, langile-kostuak, ondasun eta zerbitzu arruntei lotutako gastuak, instalazioak eta ekipamenduak konpondu, mantendu eta zaintzeko gastuak eta Unibasq-i Legez dagozkion egiaztapen- eta ebaluazio-jarduerei lotutako gastuak ordaintzeko finantza-nahikotasuna. Finantzaketa hori ez dago ekintzen helburuen araberako ebaluazioaren emaitzei lotuta. Eusko Jaurlaritzak finantzatzen ez duen zatiari tasen bidez egingo zaio aurre.

La financiación básica y ordinaria garantiza la suficiencia financiera de la Agencia para llevar a cabo aquellas actividades que le son de obligado cumplimiento, sufragando los costes de personal, gastos en bienes y servicios corrientes y gastos de reparación, mantenimiento y conservación de instalaciones y equipamientos, así como los costes asociados a las actividades de verificación, acreditación y evaluación que Unibasq tiene encomendadas por Ley. Esta financiación no está sujeta a los resultados de la evaluación por objetivos de las acciones. La parte no financiada por el Gobierno Vasco será cubierta por tasas.

Bestalde, Agentziaren jardueraren aldizkakotasunen ondorioz gertatzen dira aldaketak urte eta partida jakin batzuetan. Adibidez, 2016. urtean kostua handiagoa izango da UPV/EHUko ordainsari-osagarrien ebaluazio masiboaren ondorioz, eta 2019. urtean, berriz, ENQA erakundekoa izaten jarraitzeko aukera berritzeak 35.000 €-ko gastu gehigarria ekarriko du.

Por otra parte, la actividad de la Agencia tiene periodicidades que explican los cambios en años puntuales en algunas partidas. Así, el año 2016 supone un mayor coste por la evaluación masiva de los complementos retributivos individuales de la UPV/EHU, y en el año 2019 la renovación de la pertenencia a ENQA supone un gasto extra de 35.000 €.

Helburuen arabera Ebalua daitezkeen Jardueretarako Ekarpenak

Helburuen arabera ebalua daitezkeen eta II. Eranskinean jasota dauden jardueren finantzaketa Jarraipen Batzordeak egiten duen ebaluazioaren emaitzei lotuta dago.

Aportaciones para Actividades Evaluables por Objetivos

La financiación para las actividades susceptibles de ser evaluadas por objetivos, y recogidas en el Anexo II, está sujeta a los resultados de la evaluación que realice la Comisión de Seguimiento.

Finantzaketa-premiak ondorengo taulan agertzen dira, eta Eusko Jaurlaritzak finantzatuko ditu helburuen betetzea kontuan hartuta.

Las necesidades de financiación aparecen en la siguiente tabla y serán financiadas por el Gobierno Vasco atendiendo a la consecución de objetivos.

	2016	2017	2018	2019
Helburuen araberako Finantzaketa Financiación por Objetivos	***143.744***	***145.000***	***150.000***	***160.000***

Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartu du Aurrekontuen Lege Proiektuan helburuka ebaluatu daitezkeen honako ekarpen hauek esleitzeko:

El Gobierno Vasco se compromete a consignar en el proyecto de Ley de Presupuestos las siguientes aportaciones para actividades evaluables por objetivos:

	2016	2017	2018	2019
Helburuen araberako Finantzaketa Financiación por Objetivos	***143.744***	***145.000***	***147.000***	***150.000***

Inbertsio Errealetarako Ekarpenak

Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartu du Aurrekontuen Lege Proiektuan inbertsioetarako honako ekarpen hauek esleitzeko:

Aportaciones para Inversiones Reales

El Gobierno Vasco se compromete a consignar en el proyecto de Ley de Presupuestos las siguientes aportaciones para inversiones:

2016	2017	2018	2019
29.411	35.000	37.000	40.000

Beraz, Eusko Jaurlaritzak bere gain hartutako guztizko finantzaketa honako hau izango da:

Por tanto, la financiación total asumida por el Gobierno Vasco será

	2016	2017	2018	2019
Oinarrizko Finantzaketa Financiación Básica	***699.795***	***752.857***	***772.482***	***792.713***
Ohiko Jardueren Finantzaketa Financiación Actividades Ordinarias	***356.461***	***342.143***	***340.518***	***347.287***
Helburuen araberako Finantzaketa Financiación por Objetivos	***143.744***	***145.000***	***147.000***	***150.000***
GUZTIRA TOTAL	**1.200.000**	**1.240.000**	**1.260.000**	**1.290.000**

Inbertsio Errealak ***Inversiones Reales***	29.411	35.000	37.000	40.000
GUZTIRA (INBERTSIO ERREALEKIN) **TOTAL (CON INV. REALES)**	**1.229.411**	**1.275.000**	**1.297.000**	**1.330.000**

Aurreko ataletan ezarritako zenbatekoak aplikagarriak dira konpromiso batzuen markoaren barruan, hain zuzen ere aurrekontu-egonkortasunari eta jasangarritasun finantzarioari dagokien arloetan, konpromiso horiek Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu guztiei eragiten dietenak badira.

Las cantidades consignadas en los apartados anteriores han de entenderse aplicables dentro del marco de los compromisos que, en materia de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera, afecten al conjunto de los Presupuestos de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Unibasq-en autofinantzaketa honako taula honen araberakoa izango da:

Unibasq deberá autofinanciarse según la tabla siguiente

	2016	2017	2018	2019
Unibasqen Autofinantzaketa ***Autofinanciación Unibasq***	***202.739***	***35.857***	***50.482***	***65.713***

Autofinantzaketa hori Euskal Unibertsitate Sistemaren ohiko ebaluazioko programei lotutako egiaztapen- eta ebaluazio-tasen, beste unibertsitate-sistema batzuetarako egin diren ebaluazioetara egokitutako tasen edo proiektuen araberako beste diru-sarrera batzuen bidez egingo da. Hortaz, aurreikusitakoaren arabera, helburuen araberako nazioarteko jardueraren kostua %30eko proportzioan autofinantzatuta izango du Agentziak aldi horren amaieran.

Esta autofinanciación se realizará mediante las tasas de acreditación y evaluación asociadas a los programas de evaluación ordinaria en el SUV, a las tasas ajustadas a las evaluaciones efectuadas para otros sistemas universitarios u otros ingresos por proyectos. Así, la previsión es que al final de este periodo el coste de la actividad internacional por objetivos de la Agencia esté autofinanciada en un 30%.

Ordaintzeko modua eta justifikazioa

Programa-Kontratu honetara zuzendutako zenbatekoa bi alditan ordainduko da urte bakoitzean (% 75 urtarrilean eta % 25 uztailean), Jarraipen Batzordeak betetzeari buruzko txostena egin ondoren egiten diren egokitzeak aparte utzi gabe.

Forma de pago y justificación

El abono del importe destinado a este Contrato-Programa se realizará, para cada una de las anualidades, en dos pagos, el 75% en enero y el 25% en julio, sin perjuicio de los ajustes que puedan realizarse una vez emitido el informe de cumplimiento por la Comisión de Seguimiento.

6. INDARRALDIA

Programa-Kontratuaren indarraldia 2016ko urtarrilaren 1etik 2019ko abenduaren 31ra izango da, baina alderdi sinatzaileen asmoa beste aldi baterako berritzea da. Aldi berri horren iraupena, finantzaketa eta helburuak azken data horretan berrikusiko dira.

Dena dela, amaiera-dataren ondoren, 2019rako finkatutako baldintzetan luzatuta dagoela ulertuko da, Jarraipen Batzordeak hurrengo programa-kontratua indarrean jarri aurretik luzapen-baldintzen inguruan

6. VIGENCIA

La vigencia del Contrato-Programa se extenderá desde el 1 de enero de 2016 al 31 de diciembre de 2019, aunque es intención de las partes firmantes renovarlo por un nuevo período, cuya duración, financiación y objetivos serán revisados en ese momento.

No obstante y cumplida la fecha de vencimiento, se entenderá prorrogado en los términos fijados para 2019, sin perjuicio de las decisiones que la Comisión de Seguimiento pueda adoptar sobre los términos de

hartzen dituen erabakiak aparte utzi gabe. Ildo horretan, eta bidezkoa bada, 2019ko Aurrekontuen Legean Unibasq-en premiei erantzuteko partida jasoko da, eta behin betiko likidazioa hurrengo programa-kontratuak ezartzen duenaren araberakoa izango da.

7. KONTROLA ETA JARRAIPENA

Programa-Kontratu honen Jarraipen Batzorde bat eratuko da, eta unibertsitateen arloan eskumena duen Saileko bi ordezkarik eta Agentziako beste bi ordezkarik osatuko dute.

Batzordeak ohiko bilera bat egingo du urtean behin, eta ezohiko bilerak egingo ditu Programa-Kontratua sinatu duten aldeetako edozeinek eskatuta.

Batzordearen erabakiak adostasunez hartuko dira. Batzordeak kanpoko pertsonen parte-hartzea eskatu ahal izango du bidezkotzat hartzen dituen txosten teknikoak lortzeko.

Jarraipena egiteko, honako eskema honi jarraituko zaio:

- Desbideratzeen berri emango duen eta neurri zuzentzaileen premia adieraziko duen urteko jarraipena.
- Bitarteko ebaluazio bat bigarren urtea amaitzean; bertan, ekintza zuzentzaileak ezarriko dira beharrezkoak izanez gero. Ebaluazio horren ondorioz, helburuak lortzeko desegokiak edo zehaztugabeak izan diren ekintzak edo adierazleak berriz zehaztu ahal izango dira. Hainbat urtetan egiten diren ekintzen bilakaera hartuko da kontuan.
- Programa-Kontratuaren betetze-maila eta ondorio ekonomikoak finkatuko dituen azken ebaluazioa.

Batzordeak honako funtzio hauek izango ditu:

- Programa-Kontratuaren helburuen betetze-maila ebaluatuko du eranskinetan zehaztutako ekintza multzo bakoitzean, eta beharrezkoak diren zehaztapenak, egokitzeak eta eguneratzeak egingo ditu ekintza horiei lotuta dauden eta eranskinetan agertzen diren adierazleetan.
- Programa-Kontratu honetan adostutako konpromisoen betetze-mailari buruzko Urteko

prórroga, hasta la entrada en vigor del siguiente. En este sentido, y si ha lugar, la Ley de Presupuestos del 2019 incluirá la partida correspondiente a las necesidades de Unibasq, cuya liquidación definitiva se supeditará a lo que establezca el siguiente contrato-programa.

7. CONTROL Y SEGUIMIENTO

Se constituirá una Comisión de Seguimiento del presente Contrato-Programa integrada por dos representantes del Departamento competente en materia de universidades y por dos representantes de la Agencia.

La Comisión se reunirá de manera ordinaria una vez al año, y de manera extraordinaria a petición de cualquiera de las partes firmantes del Contrato-Programa.

Las decisiones de la Comisión se adoptarán por consenso. La Comisión podrá requerir la participación de personas ajenas a ella a fin de recabar los informes técnicos que estime oportunos.

El seguimiento se realizará siguiendo el siguiente esquema:

- Un seguimiento anual que advierta de posibles desviaciones e indique la necesidad de acciones correctoras.
- Una evaluación intermedia, al finalizar el segundo año, que establezca acciones correctoras si fuesen necesarias. Como resultado de esta evaluación, se podrán redefinir las acciones o indicadores que se hayan mostrado inadecuados o imprecisos para su fin. Se considerará la evolución de las acciones que se desarrollen plurianualmente.
- Una evaluación final que determine el grado de cumplimiento del Contrato-Programa y las consecuencias económicas.

Las funciones de la Comisión serán las siguientes:

- Se encargará de evaluar el grado de cumplimiento de los objetivos del Contrato-Programa en relación con cada uno de los grupos de acciones que se especifican en los correspondientes anexos y realizará la concreción, adaptación y actualización que sean precisas de los indicadores asociados a estas acciones y que figuran en dicho anexo.
- Aprobará el Informe Anual sobre el grado de cumplimiento de los compromisos acordados en el

Txostena onartuko du. Halaber, desbideratzeak zuzentzeko bidezkoak diren neurriak proposatuko ditu, hala badagokio.

- Programa-Kontratuaren oinarrizko magnitudeen aldaketa esanguratsurik eragingo ez duten eta, beraz, 9. klausulan aurreikusitakoaren arabera Programa-Kontratua aldatzea ekarriko ez duten egokitzeak proposatuko ditu.

- Programa-Kontratua haren indarraldian hobeto garatzeko eta indarrean dagoena amaitu ondorengo programa-kontratuak egiteko bidezkotzat hartzen diren aldaketak proposatuko dizkie alderdi sinatzaileei, betiere aldez aurreko esperientziak kontuan hartuta.

8. AURREKONTU-IZAPIDEA

